

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

372/2021 Foru Agindua, irailaren 27koa, zeinaren bidez iraungitzat jotzen baita 303/16 espedientea, Aramaioko udalerrian dauden eta udal horrenak diren Murumendi, San Adrian eta Karikogain izeneko mendi publikoak mugatu eta mugarritzeari buruzkoa

Mendi Zerbitzuak jakinarazi duenez, Aramaioko udalerrian dauden eta udal horrenak diren Murumendi, San Adrian eta Karikogain izeneko mendi publikoak mugatu eta mugarritzeko prozedura, 303/16 espediente zenbakiarekin izapidetua, abiatu zen mugaketa egoeraren adierazpenaren iragarkia ALHAOn argitaratu zenean (ALHAO, 49. zk., 2016ko maiatzaren 2koa), eta iragarki horien testua ezagutzen ziren mugakideei jakinarazi zitzaizkien, hartu-agiria zuen gutun baten bidez.

2016ko urriaren 11n eta 18an eta azaroaren 7an, neurketa egintzak egin ziren; hala ere, ez da jarraitu espediente izapidetzen eta, beraz, ez da hura ebatzi zegokion epean.

Horrenbestez, 2021eko irailaren 23an, Mendi Zerbitzuak txostena egin du, eta 303/16 espediente iraungitzat jotzea proposatu du bertan..

Kontuan hartu da aurretik azaldutakoa, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. eta 95. artikuluek eta Mendien martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren dagozkien artikuluek xedatutakoari jarraitu zaio.

Nahitaezko txostenak aztertuta, Nekazaritza Sailaren Egitura Organikoa eta Funtzionala onesten duen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 14/2016 Foru Dekretuak ematen dizkidan eskumenez baliatuz, eta Arabako Foru Aldundiko Sailak 2019-2023 Legegintzaldirako finkatzen dituen diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bederatzigarren xedapena aplikatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Iraungitzat jotzea 303/16 espedientea, Aramaioko udalerrian dauden eta udal horrenak diren Murumendi, San Adrian eta Karikogain izeneko mendi publikoak mugatu eta mugarritzeari buruzkoa eta Mendi Zerbitzuak izapidetua.

Bigarrena. Agintzea iraungitako espedienteko egintza independenteek ondorioak izan ditzatela eta egintza horiek gehi daitezela, besteak beste interesdunak eduki ditzaketan eskubiak egiaztatzeko aurkeztutako agiriak edo, egoki bada, neurketen aktak.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea eta interesdunei jakinaraztea.

Laugarrena. Administrazio bidea agortzen duen ebazpen honen aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Nekazaritza Saileko diputatuari, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian. Lehenengoa aurkezteko hilabete izango da, eta bigarrena aurkezteko bi, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 27a

Nekazaritza Saileko foru diputatua
EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria
M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE